

## ARROSA BELTZAK

*“Arrosa bide da  
maitasunaren adierazle,  
honen kolore gorria ei da  
pasioaren erakusle.”*

Iraganeko haizea etengabe dabil dantzan,  
nigan iltzaturik geratu diren gomutapenak astintzen;  
oldoztu nahian.  
aitzitik, zuhaitza ez da haize-bolada baino sendoago,  
eta haizeari laztan dezan uztea zertaratu dut:  
laztan mingarria,  
atsegina era berean,  
iraganaren melodia,  
joandako egun haien eztitasuna,  
eman gabeko musu haien desioa.

Haizeak arrosa gorriak ekarri dizkit  
hauen usainak inguraturik nauka,  
hauen kolore gorria...  
pasioa...  
Zure pasioa da arrosak gorritz margotzen dituen.  
Arrosen arantzek gatibu naukate,  
ezin dut ihes egin.  
Saiakerak aski ez dira etsipena askatu eta sosegatzeko.  
Zure arantzek min egiten didate,  
min bihotzean...  
dolu atsegina,  
eramangaitza,  
bizitzeko arrazoia.

Zu hemen ez izatea ez da ezer  
arantzen ziztaden aldean.  
Ez zaitut nire alboan,  
nire barrua hutsik utzi zenuen,  
zuk eraman zenuen ene bizipozaren azken hatsa.

Izar uxoez desirak egia bihurtzen omen dituzte,  
zu zinen nire izar uxoa.  
Ilargia maitasunaren erakusgarri omen da,  
zu zinen nire ilargia.  
Izarrek liluratu egiten omen gaituzte,  
zu zinen nire izarra.  
Unibertsoan hainbat gauza misteriotsu omen daude,  
zu zinen nire Unibertsoa.  
Zerua oso berezia omen da,  
zu zinen nire zerua.  
Eguzki printzen distira itsugarriak min egiten omen du,  
zu zinen nire eguzkia.  
Guztia bakarra omen da,  
zu zinen nire guzti eta bakarra.

Zu zara nire guzti eta bakarra.  
Joan zinen,  
aterantz egin zenuen pauso bakoitzeko  
nire barrua apur bat gehiago hustu zenuen,  
erabat hutsik geratzeraino.

Orduan,  
arrosari zuk ematen zenion kolore gorria kendu nion.  
Eta beltzez margotu nuen,  
nire etsipena izan zen arrosa gorritz margotu zuena,  
tristura izan zen errudun bakarra,  
eta zu errugabe bakarra.  
Kolorerik gabeko bizia eman nizun,  
eta zuk atea ixtea erabaki zenuen.  
Orain nik izango dut kolorerik gabeko bizia,  
itzal hotzean murgilduko naiz,  
zure irriaren berotasunetik urrun.  
Tristuraren zurrunbiloak irentsiko nau,  
zurrunbiloak eramango ditu gure oroitzapenen errautsak,  
eta haize bolada bakoitzean arrosa beltzak eramango dizkizut.

Orduan,  
arrosari zuk ematen zenion kolore gorria itzuliko diozu.  
Ez da haize bolada bat izango,  
gerora alde egingo duena.  
Biok bat izango gara berriro,  
baina oraingoan argiaren kolore guztiek argituko gaituzte,  
zure arantzek min egin diezadaten utziko dut,  
eta gure oroitzapenak euren errautsetatik berpiztuko dira.  
Nahiak gorpuzteko ahalegin hutsala baino ez zatekeen, ordea.

\* \* \*

Lorategira irten naiz,  
zu gogoratzeko landatu nituen arrosoetarantz gerturatu naiz,  
eta euren kolore gorria beltz bilakatu dela antzeman dut,  
betiko melankoliara kondenaturik.

Oroitzapenen errautsak baino ez ditu astinduko orain haizeak,  
eta errautsek arrosei egingo diete bisita,  
eta arrosak oroitzapenez margotuko dituzte,  
beltzak izango dira,  
eta nik zuri arrosa beltzak oparituko dizkizut.